

Hizkuntz politiken arteko alderaketa (I)

J. Inazio Marko Juanikorena

Artikulo honetan, hizkuntz politika ofiziala finkatzeko oinarrizko proposamenak egiten dituzten hiru agiri aztertu eta euren arteko konparaketa egiten da. Hiru dokumentu hauek dira: Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordearen 1983ko "Euskara Politikarako Oinarriak" eta 1993ko "Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak", eta Catalunya-ko Generalitatearen Consell Social de la Llengua-aren 1993ko "Plan General de Normalització Llinguística". Egileak, bestalde, balorazioak azalduko dituen artikulua-ren bigarren atal bat iragartzen du aldizkariaren hurrengo zenbakirako.

Three documents dealing with basic proposals to establish an official language policy are analyzed and compared in this section. These are: "Basis for the Basque Language Policy" ("Euskara Politikarako Oinarriak") and "Basic Criteria for the Basque Language Policy" ("Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak"), both worked out by The Basque Government Advice Committee for the Basque Language in 1983 and 1993, respectively; and "A General Plan for Language Normalization" ("Plan General de Normalització Llinguística") done by The Catalan Government Social Language Committee" in 1993. The author promises a sequel to this article, to be published in the next issue, where he discusses these three documents.

«Aholku Batzordearen ustez, euskararen etorkizuna segurtatzeko garai batean herriaren borondate hutsa zenari, lehen falta ziren eta egun (1983) eskuratu diren bitartekoak gehitu behar zaizkio»

«Euskararen Aholku Batzordearen ustez, errealismoz jokatu beharra dago, baina beti ere errealitatea baino aurrerago, onerako aldatu ahal izateko»

Ezaguna denez, aurten kaleratu du Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak "Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak" izeneko dokumentua. Bestalde, aurten kaleratu du Catalunya Generalitateko Consell Social de la Llengua Catalana-k "Proposta de Plan General de Normalització Lingüística a Catalunya" izeneko dokumentua ere. Dokumentu hauek garrantzitsuak dira, bakoitzak bere lurraldean bertako administrazio nagusiek bideratu beharreko hizkuntz politikaren nondik norakoak adierazten baitizkigute.

Horregatik, hurbilagotik ezagutu eta euren arteko alderaketa egin nahi izan dugu. Ez ditugu, baina, bi dokumentu horiek bakarrik aztertzen, hirugarren bat ere kontutan hartzen baitugu: Aholku Batzordeak 1983an kaleratutako "Euskara Politikarako Oinarriak" izenekoa hain zuzen ere. Azterketa bitan banatuko da, lehenengo honetan (eskuartean duzun honetan) aipatu hiru dokumentuen laburpena egin eta bertako egitura, atal zein ideia nagusiak azpimarratu ditugu, hiru txostenen zergatien, helburuen eta lehentasun estrategikoen arteko konparaketa-koadro batekin amaitzen dugula. Bigarrean, berriz, aldizkariaren hurrengo zenbaki batean argitaratuko dena, konparaketaren balorazioak egingo dira.

Euskara Politikarako Oinarriak - 83

1983. urtean argitaratu zuen Euskararen Aholku Batzordeak bere lehen dokumentua, "Euskararen Politikarako Oinarriak" izena zeramana. Agiri hau lau atal nagusitan banatzen da:

- 1- Sarrera
- 2- Elebitasunaren arazoa
- 3- Oinarrizko kriteriologia
- 4- Ikerlanak

Lehenengo atalean, *Sarreran*, hizkuntz politikarako kriteriologia bat finkatu beharra da jasotzen den ideia nagusia.

Aholku Batzordearen ustez, euskararen etorkizuna segurtatzeko garai batean herriaren borondate hutsa zenari, lehen falta ziren eta egun (1983) eskuratu diren bitartekoak gehitu behar zaizkio. Bitarteko horien erabilpenean sortzen diren kezkei erantzuteko sortu du Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordea, eta honek, bere buruari jarri dion lehen lana premiatasunean ez erortzeko kriteriologia bat erabakitzea eta mailaketak ezartzea izan da.

Batzordearen ustez ere, Jaurlaritzak bere kriteriologia finkatu behar du. Zentzu honetan, errealismoz jokatu beharra dago, baina beti ere errealitatea baino aurrerago, onerako aldatu ahal izateko. Ezin ahaztu, bestalde, gizabanakoen garrantzia.

Bigarren atalean, *Elebitasunaren Arazoa* aztertzen da: elebitasun mailak, elebitasun osoa lortzearen zailtasunak eta hemen finkatu beharreko helburua.

Aholku Batzordearen ustez, elebitasunarena da azertu beharreko arazorik oinarritzakoa, gainera, eta arestian aipatu errealismoa kontutan hartuz, gizarte elebidun bat sortzeak dituen zailtasunak argi azaldu eta jakinarazi behar zaizkio gizarteari.

Lau elebitasun maila ezberdintzen ditu Batzordeak: osoa, pasiboa, diglosikoa eta faltsua. Gure gizartean gertatzen den elebitasun mota, nagusiki, hirugarrena litzateke (diglosikoa). Baina, nagusiki erabiltzen den kontzeptua lehenengoa da (elebitasun osoa), nahiz eta kontutan hartu beharreko datua izan "ez dagoela Europa eta munduan horrelako gizarte elebidunik, halako elebitasun osorik lortu duenik".

Beraz, egoera diglosiko ezagutu eta onartzetik abiatu behar. Gainera, elebitasun osoa baino helburu arrazionalagoa izan daiteke diglosia ezari-ezarian gutxituz joatea. Batzordeak dioenez, helburua ongi finkatu behar da, ez baita berdina elebitasun osoa helburu gisa, edota, besterik ezean, gaitzerdi gisa finkatzea. Dena den, Estatutuak elebitasuna finkatzen du eta onartu egin behar da bere muga eta eragozpen guztiekin; beti ere, abiapuntu askoz eskasagoa duen hizkuntzari laguntza bereziak emanez.

Hirugarren atalean, *Aholku Batzordeak erabaki duen Kriteriologia* azaltzen da, erizpide orokorrak, sail bakoitzari dagoz-kion erizpideak eta lehentasunen sistematizazioa zehaztuz.

Erizpide orokor gisa, Batzordeak dioenez, lehentasuna euskara nagusia den tokiei, hizkuntzaren bizirako ezinbestekotzat diren arloei eta euskara erabilgarri bat ahalbideratu egiten duten bitartekoei eman behar zaie.

Zentzu horretan, irakaskuntza nahitaezkoa da baina ez nahikoa, beste hainbateko garrantzia izango dute komunikabideek eta, horrekin batera, administrazioak. Hauek izango dira, beraz, lehentasunezko esparruak. Hiru hauetako bakoitzean erabili beharreko erizpideak izango dira: arlo klabeak okupatu, giltzarri diren pertsonak euskaldundu, euskararen

*«EABren ustez
gure gizartean
gertatzen den elebita-
sun mota, nagusiki,
diglosikoa da»*

*«EABk dioenez,
helburua ongi finkatu
behar da, ez baita
berdina elebitasun
osoa helburu gisa,
edota, besterik ezean,
gaitzerdi gisa finka-
tzea. Dena den,
Estatutuak elebita-
suna finkatzen du eta
onartu egin behar da
bere muga eta
eragozpen guztiekin»*

erabilgarritasuna azaldu, ..

Azkenik, *Ikerlanak* izeneko laugarren atalean, egiten diren lanen ondorioak ezagutu eta erabakiak hartzeko ezinbestekoak diren ikerketa lanak bideratzea proposatzen du Batzordeak. Zehazkiago: mapa soziolinguistikoa, ereduaren eragina neurtzeko ikerketak eta hizkuntza arrunta definitzen hasteko ikerlanak.

Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak - 93

"Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak" izenburuarekin Eusko Jaurlaritza Euskararen Aholku Batzordeak aurtan kaleratu duen dokumentua sei atal nagusitan banatzen da:

- 1- Aitzin-gogoeta
- 2- Hizkuntz normalkuntza: berorren aldeko zereginak
- 3- Hizkuntz politika
- 4- Bilakaera eta balioespena plangintzaren abiapuntu
- 5- Hizkuntz normalkuntza alorrez alor
- 6- Etorkizuneko inguru berriak

Aitzin-gogoeta izeneko lehen atalean, Batzordeak txostenaren egokiera historikoa kokatzen du, noiz eta zertarako egin den zehaztuz.

Euskararen Legea eta Aholku Batzordearen lehen agiria argitaratu zirenetik hamar urte igaro direnean, eta historian zehar lehen aldiz euskararen aldeko politika ofiziala epe honetan egon denean, atzera begiratu eta bide berriei ekin aurretik geldiune bat egiteko aukera egokia irizten dio honako honi Batzordeak.

Dokumentua egiterakoan, Batzordeak gogoan eduki ditu herri-administrazio eta gizarte osoa eta hemen esandakoak euskararen bizitzan zerikusirik duten herritar, elkarte eta erakundeetako zuzendutakoak dira.

Batzordeak, txostenean jasotzen diren irizpide hauetan adostasun praktikoak lortzen lagundu nahi du, ahalik eta herritar gehienek, azken helburuan ez bada ere, denboraldi jakinako politika epekatu batean norabide bera izan dezaten. Bere esanetan, ondoko hamarkadako hizkuntz politikak eskatuko dituen molde berrituetan, erakundeen eta herritarren arteko zentzuzko fidantza praktikoa indarberritzen lagundu nahi du agiriak.

Bigarren atalean, *hizkuntz normalkuntzaren zeregin-*

«Erizpide orokor gisa, (1983) Batzordeak dioenez, lehen-tasuna euskara nagusia den tokiei, hizkuntzaren bizirako ezinbestekotzat diren arloei eta euskara erabilgarri bat ahalbideratu egiten duten bitartekoei eman behar zaie. Zentzu horretan, irakaskuntza nahi-taetzkoa da baina ez nahikoa, beste hainbateko garrantzia izango dute komunikabideek eta, horrekin batera, administrazioak»

tan, Batzordeak bi bereizten ditu: 1) Estandarizazioa, 2) Hizkun-tzarteko status-berdinketa, eskubideen berdintasuna sozialki segurtatzea. Azken honetarako, hizkuntzari kendu zaizkion edo galduta dituen funtzio sozialak itzuli edo segurtatu behar zaizkio, eta guzti hau bi zutabetan oinarrituz: gizarte eta erakundeen borondatea eta erabaki politikoak.

Ondoren, horrelako egitarau politiko baten aldeko arrazoiak azaltzen ditu Batzordeak, normalkuntzaren alde antropologikoa, historiko-soziala eta politikoa azalduz. Azken honetan, Batzordeak hizkuntz politika egin beharra justifikatzen saiatzen da esanez mundu zabalean toki askotan egiten dela; honelakoetan, babestu nahi den hizkuntza baztertuari ofizialtasun edo ofizialkidetasuna aitortzen zaiola eta, azken finean, gizarte-oreka aberatsagora iristeko eta gatazka sozio-linguistikoen irtenbiderako lanabesa dela hizkuntz politika. Eta, beraz, alderdien esku eta giza-taldeen erantzunean omen datza hizkuntz politika jaso, demokratiko eta emankorra egitea.

Hizkuntz Politika izendatu duen hirugarren atalean, Aholku Batzordeak, bere ustez azken urteotan agertu diren hizkuntz politikarekiko jarrerak zeintzuk izan diren adierazten digu lehenik, eta, ondoren, hizkuntz politikaren helburuak, bitartekoak eta aurrerantzerako ezaugarriak zehazten ditu.

Batzordearen ustez lau jarrera politiko ageri dira hizkuntz politikan, eta, itxuraz, ondoko hamarkadako hizkuntz politika ere jarrera ezberdinon artean eta beraien arteko indar-harremanaren barruan kokatuko da.

		Euskararen Sustapena	
		Alde	Aurka
Euskararen Legea	Alde	1	3
	Aurka	2	4

«Ondoko hamarkadako hizkuntz politikak eskatuko dituen molde berrietan, erakundeen eta herritarren arteko zentzuzko fidantza praktikoa indarberitzeen lagundu nahi du EABren 1993ko agiriak»

«EABren ustez lau jarrera politiko ageri dira hizkuntz politikan, eta, itxuraz, ondoko hamarkadako hizkuntz politika ere jarrera ezberdinon artean eta beraien arteko indar-harremanaren barruan kokatuko da»

«EABren ustetan bitarteko ditugu Euskararen Legea, hizkuntz erakunde politikoak EAEn bereziki Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta Jaurlaritzaren eremukako hizkuntz zerbitzuen antolamendua eta programak. Alderdi politikoak, teknikariak eta, "guztiz oinarritzkoa den bitarteko bat", gizarte-bizitzan euskalgintzan diharduten elkarte eta taldeak»

«EABren hitzetan-lankidetzan honetarako lehen urratsa erakundeek eman behar dute eta, beren hizkuntz politika ezbaian jartzeko bildurrik gabe, adostasuna bilatu»

- 1) Sustapenaren eta Euskararen Legearen aldekoa.
- 2) Sustapenaren alde eta Euskararen Legearen aurkakoa.
- 3) Sustapenaren aurka, baina Legearen aldekoa.
- 4) Sustapena eta Legearen aurkakoa.

Helburuei dagokienez, Batzordearen esanetan EAEk elebitasunaren apustua egingo du eta hori da finkatzen duen helburua: gizarte elebiduna eraikitzea, elebidunez osatutako gizartearen garatzea, hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko gai izango den herria egitea. Elebitasun hau ez da eusle soila izango, sustatzailea baizik. Elebitasunarena azpimarratzen du Batzordeak: erakunde ofizialen helburua gizartearen elebitasuna da, euskara eta erdara hiritar guztien mintzaira erabilgarri amankomun bihurtu arte.

Orain gutxi arteko prozesua erdararen aldeko izan dela, elebiduntzean ez ezik elebakarduntzean ere, eta honek euskara hizkuntz trukaketan erortzeko arriskuan jarri duela adierazten du Batzordeak. Egoera desorekatu horri aurrea hartu beharko lioke hizkuntz normalkuntzaren politikak, euskararen aldeko neurri sustagarriak erabiliz hamarkada batzuetako lana izango den bigarren elebiduntze-prozesua bideratu eta hiritarren arteko hizkuntz berdintasun demokratikoa lortzeko.

Helburu hori lortzeko bitartekoei dagokienez, politika orokorrean erabili ohi direnak dira baliagarriak hizkuntz politikan ere, Batzordearen ustetan, administrazioen hizkuntz politika indarrean dagoen barruti juridikoaren barnean eta berorrek adostasunean, hausturarik gabe egiten baita. Bitarteko ditugu, beraz: 1) Euskararen Legea, 2) hizkuntz erakunde politikoak, 3) EAEn, bereziki, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 4) Jaurlaritzaren eremukako hizkuntz zerbitzuen antolamendua eta programak. Aipatzen ditu ere Batzordeak: alderdi politikoak, teknikariak eta, "guztiz oinarritzkoa den bitarteko bat", gizarte-bizitzan euskalgintzan diharduten elkarte eta taldeak.

Bestalde, Batzordearen ustez hizkuntz politikak aurrerantzean honako ezaugarriak behar lituzke: a) Belaunaldietako lana izango den hizkuntz plangintzak xedeak eta egitarauak epekatu egin beharko ditu. b) Gatazkak gainditu eta erakundearen eta gizartearen arteko elkarlanean burutu beharko da. d) Erakunde ezberdinen politika bateratu beharra dago. e) Hiru administrazioen ahaleginen berri elkarri eman eta ahaleginak hurbildu. f) Prozesu irekia, etengabeko "feedback"az

gidatu beharrekoa. g) Lankidetzazabala, elkar hizketa, partaidetza. "Lankidetzaz honetarako lehen urratsa erakundeek eman behar dute eta, beren hizkuntz politika ezbaian jartzeko bildurrik gabe, adostasuna bilatu".

Bilakaera eta balioespina plangintzaren abiapuntu izenburua daraman laugarren atalean, Batzordeak euskararen azken urteotako bilakaerari buruzko, egungo abiapuntuari buruzko eta hurrengo urteotako hizkuntz plangintzari buruzko oharra egiten ditu.

Batzordearen ustez euskararen egoerak hobera egin du, oraindik arazo eta gune kezagarriak egon badaude ere, eta hobekuntza horretan eragina izan dute gizartean jasotako ekimenek eta erakundeen esku egon den zenbait erabaki eta ekinbide politikok. Hala ere, ez da oraindik ia inon azken helburua asebetetzera iritsi. Ondoren, zenbait esparrutan emandako aurrerapausoak zerrendatzen ditu Batzordeak.

Bizi izandakoa gogoratu ondoren, Batzordeak egungo egoerari buruzko oharra egiten ditu, honako hauek azpimarratuz: - Normalkuntzaren asmoa ez da gizarte osoarena, ezta erakunde guztiena eta agintari batzuk ez dute eginkizun propiozat hartzen. a) Sarritan erabilerak kale egiten du. b) Gizarte zerbitzuetan hizkuntz eskubideen zuzenbidezko lekua ez da aski definitu. d) Plangintza orokorraren beharra. e) Euskaldunak zailtasunak aurkitzen ditu erabilpenean. f) Administrazioetan baliabideak sakabanatuegiak. g) Euskalgintzan ari diren antolamendu ezberdinen arteko koordinazioaren kezka. h) Hainbat erakundetan euskararekiko axola eza. i) Utzikeria horren ondorioak larriagoak dira arlo sozialean (Justizia, Herrizaingoa, Osasuna,...). j) Berezko mugak ere badira. k) Erakundeek beren balioak, mugak eta ezinak dituzte eta gizarte-indarrek gero eta eragin biziagoa izan beharko dute. l) Itzulpenekiko menpekotasuna.

Atal honen azken zatian, Batzordeak hurrengo urteotako hizkuntz plangintzaren bere ustezko ezaugarriak adierazten dizkigu: a) Plangintza, aniztasunaren barnean elkarbizitzarako tresna. b) Euskaldunen leialtasuna eta konpromisua behar-beharrezkoak. d) Alderdikeriak baztertu. e) Hizkuntza integrazioarako eta ez gatazkarako. f) Erakunde eta hiritarren jarrera positiboak landu. g) Erakundeek beren hizkuntz politika aztertu eta horretarako HPINri buruzagitza aitortu eta indartu. h) Erakunde eta gizarte-ekimenen arteko gatazkak konpondu. i) Legediaren garapena. j) Giza baliabideak, teknikariak, prestatu. k) Plangintza orokorraren barnean, tokian tokiko plangintza bereziak. l) Eskualde nahiz udalarteko par-

«EABk egungo egoerari buruzko oharra egiten ditu, besteak beste honako hauek azpimarratuz: plangintza orokorraren beharra, euskalgintzan ari diren antolamendu ezberdinen arteko koordinazioaren kezka eta erakundeek beren balioak, mugak eta ezinak dituztenez, gizarte-indarrek gero eta eragin biziagoa izan beharra»

«EABk hurrengo urteotako hizkuntz plangintzaren ustezko ezaugarriak adierazten dizkigu, beste askoren artean: HPINri buruzagitza aitortu eta indartzea, legediaren garapena eta, plangintza orokorraren barnean, tokian tokiko plangintza bereziak»

tzuegoak eta zerbitzu amankomunak. II) Balioespen, ebaluazio eta gardentasuna.

Bostgarren atalean, "Hizkuntz normalkuntza alorrez alor" izenekoan, Batzordeak bere ustez normalkuntzarako lehen-tasunezko diren esparruak izendatzen ditu, ondoren alor ezberdinak aztertuz.

Batzordearen iritziz, plangintza orokorrean lehen-tasunik behinena eman behar zaie hizkuntzaren transmisio bideei eta, horrekin batera, lehen-tasun osoa izan behar du ohizko erabileremu arruntak segurtatzeak: familia, egunerokotasuna, aisialdia. Trataera berezia eta lehen-tasuna izan behar lukete ere, bai euskaldunetz trinkoenak diren lurraldeek zein gazteriak.

Batzordeak lehen-tasunezkoak dituen esparruak garbifinkatu ondoren, bestelako esparruak jorratzen ditu zehazkiago: Irakaskuntza, Helduen euskalduntzea, Komunikabideak, Administrazioa, Lan mundua, Kultura, Erlijioa eta Hizkuntza batua.

Pla General de Normalització Lingüística - 93

"Pla General de Normalització Lingüística. Objetiús i directrius proposats pel Consell Social de la Llengua Catalana" izeneko dokumentua 93ko uztailan kaleratu da. Agiri honen eginkizun nagusia hizkuntz normalkuntzarako plangintza orokorra prestatzea da, bi asmo nagusirekin: batetik, gizar-tearen aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak hizkuntz-aldaketarekin artikulatzea, eta bestetik, gizarte zibilaren erantzuna eta botere publikoen eskuhartzea ere bideratzea. Dokumentua eskema honen arabera dago landuta:

- Justifikazioa
- Ardatzak
- Oinarriak
- Helburu orokorra
 - Atalez ataleko helburuak
 - Azpiatalak
 - . Azpiatalen helburuak
 - . Jokabide estrategikoak
 - . Helburu zehatzak

«EABren iritziz, plangintza orokorrean lehen-tasunik behinena eman behar zaie hizkuntzaren transmisio bideei eta, horrekin batera, lehen-tasun osoa izan behar du ohizko erabileremu arruntak segurtatzeak: familia, egunerokotasuna, aisialdia eta euskaldunetz trinkoenak diren lurraldeek zein gazteriak»

Justifikazioan dokumentuaren eginkizuna adierazten da, gorago adierazi duguna.

Ardatzetan, berriz, bost aipatzen dira: 1- Nazioartean, kataluniar hizkuntz komunitatea beste komunitateen estatus beretsuan kokatzea. 2- Estatuan, katalunieraren menpekotasuna gainditzea. 3- Kataluniar hizkuntza duten lurraldeen arteko koordinazio instituzionalizatua. 4- Principadoan, lehen garai batean hiritarren aukera linguistikoarekiko begirunea eta, bigarren aldia, iharduera guztiak katalunieraz bideratzeko eskubidearen begirunea. 5- Arlo sozio-ekonomikoa eta haur/gazteria esparru estrategiko izendatzea.

Oinarrietan, zortzi aipatzen ditu dokumentuak: 1- Inplikaturiko gizarte sektoreen erabateko parte hartzea. 2- Informazio eta balorazioa. 3- Helburuen mailaketa. 4- Lehentasunen arabeko orokortasuna. 5- Errentabilitatea ihardueretan. 6- Pertsuasioa, indar koerzitiboa soilik okerrak ekiditeko. 7- Ahalik eta adostasun handiena. 8- Hizkuntzari ospea eman, aurrerakuntzarekin lotuz.

Hurrengo atalean, dokumentuak plangintza orokorraren *Helburu Orokorra* finkatzen du. Bere esanetan, egungo muga juridikoan, helburu hori bi puntutan laburbildu daiteke:

«1. Que la llengua propia de Catalunya sigui habitualment usada per les institucions públiques i privades en tots els usos públics i s'hi desenvolupi, en condicions de no subordinació, tota l'activitat.

2. Que siguin plenament respectats els drets lingüístics de cada ciutat de Catalunya pel que fa al desenvolupament de totes les activitats públiques, professionals, culturals, socials o de lleure, sabent que els poders públics protegeixen o emparen l'exercici d'aquests drets, sense conculcar el dret col·lectiu de la comunitat lingüística catalana a la llengua pròpia del territori.»

Hauek zehaztu ondoren, dokumentuak azterketa sektoriala egiten du, sektore bakoitza azpisektoretan banatuz eta azpisektore bakoitzean helburu azpisektorialak, jokabide estrategikoak eta helburu espezifikoak zehaztuz. Hauek dira finkatzen dituen atal eta azpiatalak:

«Consell Social de la Llengua Catalana-k lehen garai batean hiritarren aukera linguistikoarekiko begirunea eta, bigarren aldia, iharduera guztiak katalunieraz bideratzeko eskubidearen begirunea planteatzen du»

«CSLC-ren proposamena da arlo sozio-ekonomikoa eta haur/gazteria esparru estrategiko izendatzea»

ATALAK	AZPIATALAK
Erabilpen ofiziala eta hizk. eskubideak	Generalitatearen administrazioa Administrazio lokala Justizia administrazioa Estatuaren administrazioa Zuzenbideko talde profesionalak Hiritarren hizkuntz eskubideak
Hezkuntza, ikerkuntza eta gazteria	Hezkuntza eskolarra Helduen hezkuntza Goi mailako irakaskuntza Gazteria eta famili unitatea Hizkuntz formakuntzarako ikerkuntza
Komunikabideak eta kultur industriak	Kultur industriak Komunikabideak Publizitatea Informatika
Arlo sozioekonomikoa	Elkarte enpresarial eta sindikalak, kolegioak, kontsumitzaileen elkarteak Enpresa pribatuak Enpresa publikoak
Elkarteen alorra	Kirol elkarteak Bestelako elkarte eta talde sozialak Elizak eta konfesio erligiosoak Ekintza ludikoak
Lurralde eta kultur harremanak	Vall d'Aranekiko koordinazioa Kataluniar hizkuntza duten beste lurraldeak Estatu espainolarekiko harremanak Europar Elkartearekiko harremanak Bestelako nazioekiko harremanak
Standarren hedapena eta ikerkuntza	Standarizatzeko lanen koordinazioa Erizpide linguistikoen sormena, hedapena Terminologia, hizkera bereziak Ikerkuntza soziolinguistikoa

Hiru agirien arteko oinarrizko konparaketa

	Aholku Batzordea 83	Aholku Batzordea 93	Consell Social 93
Txostenaren zergatia	Hizkuntz Politikarako kriteriologia finkatzeko	Hizkuntz Politikako molde berrietan erakunde eta herritarren arteko fidantza praktikoa indarberritzen laguntzeko	Hizkuntz Normal-kuntzarako plangintza orokorra prestatzeko
Helburuak	Elebitasuna Estatuak horrela finkatzen duelako. Elebitasunaren arazoak aztertzen ditu.	Gizarte elebiduna eraikitzea. Elebidunez osatutako gizartea garatzea.	Erakunde publiko eta pribatuaren iharduera publikoetan katalan unieraren erabilpen ezmenpekoa. Norbanakoaren eskubide eta komunitatearen eskubide kolektiboaren bermea.
Lehentasun estrategikoak	Irakaskuntza Komunikabideak Administrazioa	Transmisioa Senitartea Gazteria	Sozio-ekonomia Gazteria

J. Inazio Marko Juanikorena

*Euskal Kulturaren Batzarrea-ko Idazkari Nagusia
Udako Euskal Unibertsitatea-ko Soziolinguistika Sailburua*

*General Secretary of the Basque Culture Assembly (EKB)
Head of the sociolinguistics dept. of the Basque Summer University (UEU)*